

Itzultze zamak arintzeko tresna

Hizkuntza batetik bestera egiten orduak ematen dituzte itzultzaileek. Sarri oso antzekoak diren testuak itzultzen dituzte. Urteak dira lana errazteko itzulpen memoriak daudela. Hau da, lehen egindako itzulpenak hurrengoan baliatzeko bitartekoak.

ONINTZA IRURETA

WORDFAST ordenagailuz lagundutako itzulpen tresna da, programa informatikoa, Trados den bezalaxe. Ingeniaritza linguistikoan aritzen den Eleka enpresako Elena Garciak azaldu digu zer den itzulpen memoria, eta haiek Wordfast programa erabiltzen dutenez, guk ere programa horren azalpenak emango ditugu. Dena dela, antzeko funtzioak betetzen dituzte batak ala bestek.

Zertarako balio dio Wordfastek itzultzaileari? Bi hizkuntzak zehazten ditu erabiltzaileak, iturburu hizkuntza eta xede hizkuntza. Hala, gaztelanatik euskarara itzulitako testuak gordetzen ditu edo alderantziz. Itzulpenak biltegian jasotzen ditu, esaldi pareak egiten ditu itzultzaileak. Euskarazko halakori gaztelaniazko halako dagokio, beste hari beste halako... eta horrela dokumentu osoa esalditan lerrokatuta. Itzulpen horiek guztiak pilatzen doaz. Itzultzailea lanean ari denean abisua emango dio ordenagailuak, esanez itzultzen ari den esaldiaren tankerakoren bat “ehizatu” duela itzulpenen biltegian, itzulpen memorian alegia. Erabiltzaileak eskuratuko du ordenagailuak proposatutako esaldi hori eta gustuko badu hartuko du, bestela berak itzuliko du. Garbi gera dadila, Wordfast moduko programek ez dituzte itzulpenak egiten; erabiltzaileak aurrez sortutako itzulpenak berrerabiltzen laguntzen dute. Itzulpen automatikoa bestelakoa da: hizkuntza bateko testua sartu eta berak itzultzen du osorik beste hizkuntzara.

Translation memory	Itzulpen-memoria
*This TM of over 500 TUs was processed with an unlicensed version of Wordfast.	*Bostehun IU baino gehiago dituen IM hau lizentzia gabeko Wordfast-en bertsio baten bidez prozesatuta dago.
Your TM is fine, but cannot be used for the moment. Matches cannot be found in this TM.	Zure IMak ez du akatsik, baina, oraingoz, ezin duzu erabili. Ezin da bat-etortzerik aurkitu IM honetan.
Please buy a license number (if not already done), type it in Wordfast, then REORGANISE the TM (in Wordfast, see 'Translation memory'>'Service').	Mesedez, erosi lizentzia-zenbakia (oraindik erosi ez baduzu), idatzi Wordfast-en, eta BERRANTOLATU IMa (Wordfast-en, ikus 'Translation memory'>'Service').
*WfMemory... has been reorganised and reindexed.	*WfMemory... berrantolatu da, eta berri indexatu da.
Files	Fitategiak
Select TM	Hautatu IMa
*Select a Wordfast or TMX translation memory (right-click to open TM in Ms-Word).	*Hautatu Wordfast formatuko edo TMX formatuko itzulpen-memoria (egin klik saguaren eskuineko botoian IMa Ms-Word-en irekitzeko).
Share TM through LAN	Partekatu IMa LAN sarearen bidez.
*Share TM through a Local Area Network (LAN).	*Partekatu IMa sare lokalaren bidez (LAN).

Itzulpen memoriak egiteko oinarritzko ariketa da dokumentu pareak lerrokatzea, alegia iturburu hizkuntzari xede hizkuntzako esaldiak parean jartzea.

Itzulpen memorien erabiltzaileak

Hiru talde bereizten ditu Elena Garciak: administrazioa, itzulpen zerbitzuak eta enpresak. Administrazioan, erakunde handitan (Eusko Jaurlaritza, IZO, Foru Aldundiak), itzultzaile asko eta baliabideak daukate eta itzulpen memoriak aspalditik erabiltzen dituzte, izan Wordfast edo Trados. Udalek berriz, baliabide gutxiago dute eta Wordfastari errazago heldu diote merkeagoa delako eta Tradosen tankerako funtzioak betetzen dituelako. Eleka duela bost bat urte hasi zen udalekin lanean eta Gipuzkoa eta Bizkaiko bezeroak

ditu. Beste talde bat itzulpen zerbitzuena da. Zerbitzu handiek urteak daramatzate Trados edo Wordfast erabiltzen eta azkenaldian zerbitzu txikiak hasi dira itzulpen memoriak erabiltzen. Hirugarren multzoan sartuko ditugu ez administrazio, ez itzulpen zerbitzu direnak, enpresak alegia. Eleka horietan muturra sartzen ari da, gero eta gehiago egoera eleaniztatan egin behar baitute lan. Eleka euskara-gaztelania parearekin ari da lanean, lantegi barruko jarduna elebitan izan dadin. Garciak dioenez, ohikoena da ingeniariak edo dena delako adituak berak itzulpe-

**Logikoa litzateke
erabiltzaileek itzulpen
memoriak elkarbanatzea,
alegia, publiko jartzea,
konparazio baterako
sarean**

nak egin behar izatea, eta noski, ez dira hizkuntzan adituak, beren gaitasunak baizik. Nahiz eta industria sektorean hizkuntza sentsibilizazioa oraindik nahiko lausoa izan, gero eta bezero gehiago dituzte enpresetan.

Erabiltzaileak itzulpen memoriekin lan egitea erabakitzen duenean baditu gutxienez bi aukera. Bata da berak programa erosi, instalatu eta bere kabuz lan egitea, itzulpen memoriak berak sortuz edo besteek bere ordenagailuan sartuz. Bestea profesionalen atea jotzea da. Elekak esate baterako, hainbat zerbitzu eskaintzen dio bezeroari, hasi programa instalatzen eta itzulpen memoriak garbitzeraino. Datu deigarria eman digu: zerbitzu baterako edo besterako Elekako atea jotzen dutenen %95ak eskatzen die itzulpen memoriak beraiek sortzeko, alegia, lehendik eginak dituzten itzulpenak dokumentu paretan lerrokatu eta prestatzea ez dute erabiltzaileek egiten enpresak baizik.

**Itzulpen memoriak
elkarbanatzearen abantaila**

Itzulpen memoriak sortu egin behar dira. Dokumentu pareak lerrokatzea ez du makinak egiten, norberak egin behar du. Lana da. Eta sarri, batik bat administrazioan, oso-oso antzeko testuak erabiltzen dira, dela udal-letan dela bestelako erakundeetan. Bada, logikoa litzateke erabiltzaileek itzulpen memoriak elkarbanatzea, alegia, publiko jartzea, konparazio baterako sarean. Oraingoan hiru itzulpen memoria daude Interneten: IZOrena (Itzulpen Zerbitzu Ofiziala), EIZIrena (Euskal Itzultzaile,

Itzulpen automatikorako bidea

Hala galdetu diogu Eleka enpresako Elena Garciari. Ea itzulpen memoria itzultzaile automatikoa antolatzeke lehen pauso modukoa den. Galdera sinpleegia erantzun korapilatsua duenarentzat. Beraz, azaletik bada ere, itzultzaile automatikoen gaur egungo joerak azaldu dizkigu, nolabait ikusteko itzulpen memoriak eta automatikoak nola uztartzen diren.

Itzulpen automatikoa egiteko hainbat teknika dago, bi dira nagusiak. Bata, Google-ek erabiltzen duena, estatistika. Corpus erraldoiak ditu, testu masa handiak eta itzulpena egiterakoan hor begiratzen du kointzidentziak aurkitzeko. Ez darabil teknologia linguistikorik. Bestea, ordenagailuari esaldien analisi morfosintaktikoa egiten irakastea da.

Kontua da euskarazko corpus masa izugarriak ez dagoela eta egun batetik bestera sortzerik ez dago. Beraz, zenbat eta itzulpen memoria publiko gehiago egon

hobeto, hori dena baliatuko baliatzeke corpus moduan.

Euskararen berezitasunak kontuan hartuta, gaur egun aipatutako bi tekniken nahasketak hartu du indarra.

Orain arteko euskarazko itzultzaile automatikoen emaitzak denetarikoa izan dira: gauza batzuk ondo itzultzen ditu, beste batzuk ez hain ondo eta beste batzuk oso gaizki.

Itzulpen onak noiz egingo dituen galdetu diogu Garciari. Galdera inozoegia oraingoan ere. Hara erantzuna: "Itzultzaileak ez daitezela beldurtu, ez diote lanik kenduko. Berehalako helburua ez da itzulpen profesionalak egitea, edukiak, esate baterako webgureko informazioa, ulertzeko modukoa egitea baizik. Norbaiti entzun nion itzulpen automatikorengatik hizkuntzak ikasteari utziko geniola. Kotxeke irratian ingelesezko abestia ulertzeko eskuko ordenagailua eraman behar ote dut ba? 500 urtera ez dakit, orain zientzia fikzioa da hori".

Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte) eta Bizkaiko Foru Aldundiarena. Elekako Garciari eta beste hainbat erabiltzailei galdetu diegu zergatik ez diren itzulpen memoria gehiago publikoak, horrek dirua eta denbora aurrezten lagunduko badu. Bezero askoren itzulpen memoriak egin dituen Garciak bi arrazoi aipatu dizkigu. Lehena: Datuen Babes Legea kontuan hartu behar dela. Administrazio-ko dokumentuetan sarri ageri dira herritarren izen-abizenak, NAN zenbakia eta bestelakoak. Datu horiek ezin dira publiko egin. Horretarako Elekan tresna bat sortzen ari dira, datuok detektatu eta zentzurik gabe-

ko ordezeko zerbait paratzeko. Bigarren arrazoiak: itzultzaile bakoitzak itzultzeko modu berezia du, bakoitzak bere "maniak" ditu eta horiek besteren esku uztea inor gutxi nahi du. Dena dela, Garciak udal txikietako hainbat itzultzaile ezagutu du, baliabide gutxiarekin eta batzuetan formazio urriarekin lanean ari direnak. Haiek eskertuko lukete erakunde handiagoe-tako edo Foru Aldundiko itzulpen memoriak eskura izatea. ■

Itzulpen memoriak egiteko tresnak:

www.wordfast.net

www.trados.com/en

Babeslea: Errenteriako Euskara Zerbitzua



Errenteriako Udala
euskarazko komunikabideen alde



**euskara
zerbitzua**
errenteriako udala